Gainera, Hezkuntza Sailak SIM txartelak eman dizkie Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetatik goragoko haurrei, haien arabera 10 urtetik aurrera hasten baitira telelanarekin. Hori horrela, egia da baita ere 3. eta 4. mailako haurrek telelana egiten dutela egun eta beraz, soluzio horrek ez du ikasle guztien etxeko lanen jarraipena bermatzen.

Eskolekin elkarlanerako prestutasuna aipatu zuen zinegotzi ordezkariak, baina egia da gaur egun Udalak ez duela internet edo gailurik gabe dauden ikasleen kopururik. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak egindako lanarekin konfiantza duela aipatu zuen, baina argi dago Udal Gobernu honek ez duela

en otros municipios, este gobierno municipal puede ponerse en contacto con las escuelas y dar una respuesta directa a los alumnos y alumnas donostiarras más vulnerables. No lo ha hecho. El día 27an de abril se informó a la persona que ostenta la concejalía delegada de área de las necesidades que todavía tenían algunas escuelas.

Según la respuesta que se nos dio en la comisión celebrada el 11 de mayo de 2020, el Ayuntamiento ha desempeñado funciones de mediador y ha comunicado las necesidades de las escuelas al Gobierno Vasco, lo que ha sido suficiente para solucionar la situación de los alumnos y alumnas de San Sebastián. Pero sabemos que, según nos lo han comunicado las propias escuelas, el Departamento de Educación del Gobierno Vasco no ha respondido a todas las solicitudes y, en algunos casos, han sido las propias escuelas las que han puesto los recursos a disposición del alumnado (cuando realmente no tienen ese tipo de recursos). Sin embargo, todavía muchos y muchas escolares donostiarras siguen sin internet y sin los dispositivos necesarios.

Además, el Departamento de Educación ha proporcionado tarjetas SIM a los niños y niñas de 5º y 6º de Educación Primaria y superiores, puesto que, según dicen, comienzan a hacer teletrabajo a partir de los 10 años. Sin embargo, también es cierto que, en la actualidad, los niños y niñas de 3º y 4º también hacen teletrabajo, por lo que esta solución no garantiza la continuidad de las tareas domésticas de todos los escolares.

La persona que ostenta la concejalía habló de la disposición a colaborar con las escuelas, pero es cierto que en la actualidad el Ayuntamiento no conoce el número de alumnos y alumnas sin internet y sin los dispositivos necesarios. Comentó que confía en el trabajo realizado por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco,

Donostiako eskolen errealitatearen berri.

Udal Gobernuak emandako proposamen haren erantzunean Donostiako Udalak konexio hori lortzen lagunduko ziela familiei esan zitzaigun, eta gaur egun alarma-egoera hasi eta bi hilabete pasatu direnean hori ez duela bete baieztatu dezakegu.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako eskolekin harremanetan jar dadila ikasleek eta familiek klaseak online jasotzeko gaur egun dituzten beharrak identifikatzeko.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari galdetu diezaiola zenbat ikasle hornitu dituen eta zenbat geratu diren hornitu gabe guztira (ez bakarrik LH5 eta LH6ko ikasleak), eta lor dezala une honetan internet konexio edo gailurik ez duten donostiar ikasleen kopurua.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari internet edo gailurik ez duten ikasleentzako baliabideak berma ditzala lehenbailehen.

Donostian, 2020ko maiatzaren 18an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego

pero está claro que este Gobierno Municipal no conoce la realidad de las escuelas de San Sebastián.

En respuesta a la propuesta se nos informó de que el Ayuntamiento de San Sebastián iba a ayudar a las familias a conseguir la conexión necesaria, pero, hoy día, transcurridos dos meses desde el inicio de la situación de alarma, podemos afirmar que no ha cumplido con esta promesa.

Por todo lo expuesto, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que se ponga en contacto con las escuelas de San Sebastián para identificar las necesidades que tienen en la actualidad las alumnas, los alumnos y las familias para poder recibir clases online.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que consulte con el Departamento de Educación del Gobierno Vasco el número total de alumnos y alumnas a los que ha proporcionado los medios necesarios y el número total de los que han quedado sin ellos (no sólo los alumnos de 5º y 6º de Primaria), y a que consiga saber cuál es el número de alumnos y alumnas donostiarras que actualmente no disponen de conexión a Internet o de los dispositivos necesarios.

3.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que garantice lo antes posible los recursos necesarios para el alumnado que no disponga de Internet o de los dispositivos necesarios.

San Sebastián, 18 de mayo de 2020

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,

EH BILDU udal taldeko zinegotzia”

concejala del grupo municipal EH Bildu”

Eztabaida hasita, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Marta Huarte Paño andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as, D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego, D.ª Marta Huarte Paño, D. Jorge Mota Iglesias y D.ª Duñike Agirrezabalaga Ugarte, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENTZIOAK: 0

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENCIONES: 0

II.2.3. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Covid-19aren testuinguruan genero-indarkeriaren aurkako protokolo berezi bat egiteari buruz.

“Reyes Carrere Zabala EH Bildu udal taldeko zinegotzia naizen honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikularen babesean, KONTROL MOZIO hau aurkezten dut, COVID-19aren inguruan ohiz kanpoko protokolo bat egitea dela eta. 2020ko maiatzaren 16an Pertsonen Zerbitzuentzako Batzordean Duñike Agirrezabalagari eginiko interpelazioaren ondorioa da mozioa.

Justifikazioa

II.2.3. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, en relación a la realización de un protocolo extraordinario contra la violencia de género en el contexto del COVID19.

“Reyes Carrere Zabala, concejala del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL en relación a la realización de un protocolo extraordinario en el contexto del COVID19. La moción de control es consecuencia de la interpelación presentada a la concejala de Igualdad Duñike Agirrezabalaga en la Comisión de Servicio a las Personas del pasado 11 de mayo

Justificación

Etxeko genero indarkeria da jasaten ari garen nahitaezko konfinamenduan gehien larriagotu den egoeretako bat. Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzat, etsairik handienarekin etxean sartuta egotea esan nahi du, eta erasotzailearekin bizitzeko denbora izugarri luzatzea. Ez da zaila irudikatzea zer presio psikologiko jasan duten; berria ez izan arren, desberdina da, eta, ondorioz, egoera berri honen ondorioak oso larriak izan daitezke. Duela zenbait astez geroztik, aditu asko ari dira ohartzen egoera horrek biktimengan izan ditzakeen ondorioez, eta orain arte diseinatu ez diren aparteko neurriak ezartzeko beharra adierazten dute.

Urrunago joan gabe, Emakundeko zuzendari nagusi Izaskun Landaidak joan den martxoan adierazi zuenez, “egoera berri baten aurrean gaude, eta oso adi egon eta jarraipen etengabea egin behar dugu, salbuespen egoera horri dagozkion neurriak hartzeko”. Gainera, nabarmendu zuenez, garrantzitsua da gizarteak eraginkorki zaintzen jarraitzea, biktimak babestuta senti daitezen. Gai horretan aditua den beste batek, Miguel Llorente Acostak, auzitegiko medikuak eta genero indarkerian adituak, honako hau idatzi du: “egungo mugakizunen ondorioz kasu larriak eta hilketak itxuraz gutxitu daitezkeen arren, gero eta ugariagoak izan daitezke inguruabarrak aldatzen badira eta emakumeek indarkeriaren irteera errazago ikusten badute, une horretan arriskua handiagoa izango baita”.

Beraz, ukaezina da aparteko neurriak abian jartzea premiazkoa dela, denontzat ezezagun den egoera honen aurrean.

Aldiz, harrigarria izan da, gutxienez,

La violencia de género en el ámbito doméstico es una de las dramáticas situaciones que más se ha agudizado durante el forzoso confinamiento que estamos sufriendo. Para las mujeres víctimas de violencia de género ha significado y significa encerrarse en casa con su mayor enemigo y aumentar dramáticamente el tiempo de convivencia con su agresor. No es difícil imaginar la presión psicológica a la que han estado sometidas que, a pesar de no ser nueva, sí es diferente y consecuentemente las secuelas de esta inédita situación pueden ser muy graves. Desde hace semanas numerosos expertos y expertas están advirtiendo sobre las secuelas que esta situación puede generar en las víctimas y apuntan la necesidad del establecimiento de medidas excepcionales diferentes a las diseñadas hasta ahora.

Sin ir más lejos, Izaskun Landaida, directora general de Emakunde, ya manifestó el pasado mes de marzo que “estamos ante una situación inédita que requiere estar muy atenta y haciendo seguimiento constante para adoptar medidas acordes a esta situación de excepcionalidad”. Además, destacó la importancia de mantener la vigilancia activa de la sociedad para que las víctimas se sientan arropadas. Otro experto en el tema, Miguel Llorente Acosta, médico forense y especialista en violencia de género, ha escrito: “la aparente disminución de casos graves y homicidios que se puede producir bajo las actuales limitaciones se podría traducir en un incremento posterior cuando se modifiquen las circunstancias y las mujeres vean facilitada la salida de la violencia, puesto que el riesgo en ese momento será más alto”.

Por consiguiente, es incuestionable que ante esta situación desconocida por todos y todas nosotras urge poner en marcha medidas excepcionales.

En cambio, ha sido poco menos que sorprenden-

Donostiako Berdintasuneko arduradun nagusiaren gidaritza falta COVID-19aren krisian zehar. Ez da ulertzen, alde batetik, lidergoa falta izatea genero indarkeriaren aurkako protokoloaren ezarri eta diseinatzean, testuinguruari egokituta, eta, bestetik, bulegoak gai dramatiko horren inguruan egiten dituen jardueri buruzko informazio eta komunikazio publiko eta pribatuaren falta.

Argi eta garbi dago ez dela nahikoa Berdintasunak Donostia.eus web orrian salatu nahi izanez gero zein telefono zenbakitara deitu behar duten adieraztea.

Beraz, salbuespenezko egoera horren aurrean, eta gomendioei jaramon eginda, udal talde honek proposamen bat egin zion Gobernuari, biktimei aurrea hartzeko, antzemateko eta kasu egiteko protokolo berezi bat egin zezan, Udaltzaingoko Genero Indarkeriaren Unitateren lidergoarekin eta koordinazioarekin nahiz hirian diharduten herritarren sareen eta elkarte sozial eta feministen laguntzarekin. Gobernuak, erantzunean, ez zuen gure proposamena balioetsi ere.

Horri buruz interpelatuta, Emakumeen Etxeak aurreikusitako programa batzuen egokitzapen telematikoen eta lineako egokitzapenen berri eman zuen Berdintasunerako zinegotzi ordezkariak, bai eta Gizarte Ekintzako teknikariak gauzatzen ari diren telefono bidezko jarraipenen berri ere. Ez zuen indarkeria matxista eta datozen hilabeteetan emakume horiengan guztietan izan ditzakeen ondorioak prebenitzeko protokolorik zehaztu, bere sailak COVID-19aren testuinguruan berriaz diseinatuta. Puntu honetan azpimarratu behar da emakume horiekin eguneroko harremanetan jartzen diren aditu

te la falta de liderazgo de la máxima responsable del Departamento de Igualdad de Donostia a lo largo de toda la crisis del COVID19. No se entiende, por una parte, la falta de liderazgo en la implantación y diseño de un protocolo contra la violencia de género ajustado al contexto y, por otra, la falta de información y comunicación pública y privada de las actuaciones del propio departamento en relación a este dramático tema.

Es insuficiente a todas luces que el Departamento de Igualdad se limite a informar en la página web de Donostia.eus de los números de teléfono de urgencia a donde llamar en caso de denuncia.

Por lo tanto, ante esta situación de excepcionalidad, y haciendo caso a las recomendaciones, este grupo municipal realizó una propuesta al gobierno para la realización de un protocolo extraordinario de prevención, detección y atención a las víctimas con el liderazgo y coordinación de la Unidad de Violencia de Género de la Guardia Municipal y con la colaboración de las redes ciudadanas y las asociaciones sociales y feministas que actúan en la ciudad. En su respuesta el gobierno ni siquiera llegó a valorar nuestra propuesta.

Interpelada al respecto la concejala delegada de Igualdad, en su respuesta informó de las adaptaciones telemáticas y online de algunos de los programas previstos por la Casa de las Mujeres y los seguimientos telefónicos que están realizando las técnicas de la Acción Social. No especificó ningún protocolo de prevención de la violencia machista, y las consecuencias que puede tener en los próximos meses en todas esas mujeres, diseñado específicamente en el contexto del COVID19 por su departamento. Conviene subrayar en este punto que las expertas feministas y voluntarias sociales que se relacionan diariamente con estas mujeres están hartas de repetir

feministak eta gizarte boluntarioak nazkatuta daudela neurriak lehen nahikoak ez zirela eta orain are gutxiago direla errepikatzen.

Azken buruan, salbuespenezko errealitate horren aurrean ohiz kanpoko neurriak prestatu behar dira, egoerarekin bat eta krisiaren hasieratik bertatik; ez da hala izan, eta ez dakigu hala izango den.

Horiek horrela, behean sinatzen dudan zinegotzi honek honako KONTROL MOZIO hau aurkezten dut:

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio ohiz kanpoko protokolo bat egin dezala, oraingo salbuespen egoerara egokituia, genero indarkeriaren biktima diren emakumeei prebentzioa, arreta eta erreparazioa eskaintzeko, erakundeak gidatuta eta lan horretan diharduten gizarte eragile guztien laguntzarekin.

2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio lehenbailehen diseinatu eta egin ditzala genero indarkeriari buruzko kontzientziazio, sentsibilizazio eta informazio kanpainak, COVID-19aren testuingurura eta emakume askok bizi duten arrisku errealitatera egokituak.

3. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio Donostiako gizarte elkarteekin eta talde feministekin bilerak egiteko egutegi bat presakoa ezar dezala, konfinatzeak genero indarkeriaren biktimengan dituen ondorioak analizatu, aztertu eta ondorioak aurreikusteko, alarma egoera honetan biktimei arreta eta laguntza emateko behar diren giza eta gauza baliabideak adostu eta

que medidas que ya antes eran insuficientes ahora lo son todavía más.

En definitiva, ante esta realidad excepcional se deben habilitar medidas excepcionales, acordes con la situación y desde el mismo inicio de la crisis; no ha sido así y no tenemos conocimiento de que vaya a ser así.

A la vista de todo ello, la concejala que suscribe, formula la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. El pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a la elaboración de un protocolo extraordinario, ajustado a las circunstancias actuales de excepcionalidad, de prevención, atención y reparación de las mujeres víctimas de violencia de género liderado por la institución y con la colaboración de todos los agentes sociales implicados en esta labor.

2. El pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a diseñar y realizar urgentemente campañas de concienciación, sensibilización e información, en relación a la violencia de género y adecuadas al contexto del COVID19 y a la realidad de peligro que viven muchas mujeres.

3. El pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a establecer de manera urgente un calendario de reuniones con asociaciones sociales y grupos feministas de Donostia para analizar, estudiar y anticipar las consecuencias del confinamiento en las víctimas de violencia de género, con el objetivo de acordar y establecer los recursos humanos y materiales necesarios para la atención y ayuda a las víctimas en esta situación de alarma y en

ezartzeko, eta etorkizunean berriro gertatzea prebenitzeko.

previsión de que se vuelva a repetir en un futuro.

Donostian, 2020ko maiatzaren 18an

Donostia, 18 de mayo de 2020

Reyes Carrere Zabala,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia.”

Reyes Carrere Zabala
Concejala del grupo municipal EH Bildu”

Eztabaida hasita, Reyes Carrere Zabala andreak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak eta Jaione Hervás Saez de Arregi andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.^a Reyes Carrere Zabala, D.^a Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Jorge Iglesias Mota, D.^a Duñike Agirrezabalaga Ugarte y D.^a Jaione Hervás Saez de Arregi, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENCIONES: 0.

II.2.4. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, COVID-19 osasun krisian bizikletaren erabilpenari buruzkoa.

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzatzen Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzatzen azter dadin. Mozioa 2020ko maiatzaren 11n Gune Publikoen Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

II.2.4. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el uso de la bicicleta en la crisis sanitaria COVID-19.

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacios Públicos el 11 de mayo 2020.

JUSTIFIKAZIOA

COVID-19 birusak eragindako alarma krisi honetan, bizikleta mugitzeko modu segurua dela argi geratu da, kutsatzeko arriskurik ez duelako eta distantzia soziala errazten duen garraibidea delako. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) ere gomendio bera egin zuen, mugitzeko beharra izanez gero oinez edo bizikletaz egitea.

Pandemia krisi honetan bizikleta erabilera handitu egin dela argi ikusi dugu, eta bizikleta kirola egiteko bakarrik ez, eta garraibide seguru bihurtu dela Donostiako hiritarrentzat.

Pandemia krisi honetan ugari izan dira bizikletaren eta espazio publikoaren alde egin duten erabiltzaile eta elkarteak.

Apirilaren 21ean "Red de Ciudades por la Bicicleta" sareak (non Donostiako Udala parte den) 21 erakundek sinatutako bizikletaren erabilera sustatzeko txoke-plana plazaratu du. Plan horretan 12 neurri adostu dira, neurri zeharo zentzudunak eta baliagarriak. Horietako batzuk jada Donostian lehendik ezartzeko asmoa aipatu den arren, ez dira oraindik gauzatu eta orain horiek ezar daitezkeela iruditzen zaigu, horretarako momentua edo aukera dugula orain.

Txirrindularitzako aditu eta bizikleten erabilera aldarrikatzen duten hainbat eragilek ere bizikletaren aldeko apustua egin dadin eskatu diete erakunde publikoei.

Kalapie, Biziz bizi, Bizikleteroak, Gurpilartea eta Balazta Euskal Herriko txirrindularien kolektiboek ere kontuan hartu beharreko neurri eta egokitzapenak aurkeztu dituzte alarma egoera honetan zehar.

JUSTIFICACIÓN

En esta crisis de alarma provocada por el virus COVID-19, se ha demostrado que la bicicleta es una forma segura de moverse, ya que no hay riesgo de contagio y es un medio de transporte que facilita la distancia social. Incluso la Organización Mundial de la Salud (OMS) ha recomendado que, en caso de necesitar trasladarse, se haga a pie o en bicicleta.

En esta crisis por pandemia hemos visto que el uso de la bicicleta ha aumentado, y que no sólo se usa para hacer deporte, sino que se ha convertido en un medio de transporte seguro para la ciudadanía donostiarra.

En esta crisis por pandemia han sido numerosos las personas usuarias y las asociaciones que han apostado por la bicicleta y por el espacio público.

El 21 de abril, la Red de Ciudades por la Bicicleta, en la que participa el Ayuntamiento de San Sebastián, lanzó un plan de choque, firmado por 21 entidades, para fomentar el uso de la bicicleta. En dicho plan se han consensuado 12 medidas, totalmente razonables y útiles. A pesar de que ya se había hablado anteriormente de implantar algunas de ellas en San Sebastián, todavía no se han llevado a cabo, y consideramos que ahora se pueden implantar, que ahora es el momento o tenemos la oportunidad de hacerlo.

Expertos en ciclismo y diversos agentes que reivindican el uso de la bicicleta también han pedido a las instituciones públicas que apuesten por ella.

Además, los colectivos ciclistas del País Vasco Kalapie, Biziz bizi, Bizikleteroak, Gurpilartea y Balazta han dado a conocer las medidas y los ajustes necesarios para esta situación de alarma.

Eta azkenik, BOEko 2020ko maiatzaren 1eko agiriak ere horrela adierazi zuen haren 3. artikuluan “Kutsatzea saihesteko baldintzak” izenburupean, 5. puntuan:

“Segurtasun tartea mantendu ahal izateko , toki entitateek eremu publikoa banatzeko erraztasunak emango dizkiete oinezkoei eta bizikletan doazenei, lehentasun hurrenkera horretan”.

EH Bildutik ere alarma egoeran zehar Donostiako Udal Gobernuari hainbat neurri azter eta ezar zitzaizkien eskatu genion. Baina Udal Gobernuak ez zuen EH Bilduk proposatutako neurri bat ere kontuan hartu.

Alarma egoera hasi zenetik ere bizikletaren erabilera sustatzearen harira, hainbat aldaketa egin dituzten hiri eta herriak ugariak izan dira:

- Berlinen, behin behineko bidegorriak margotu dituzte asfaltoaren gainean, ahal izan den bide guztietan, eta beharrezkoa zen tokian, distantzia soziala errazteko.

- Parisek 300 milioi euro inbertituko ditu 9 bizikleta-ibilbide seguruko sarea sortzeko; 50 km bidegorri eraiki dira Parisen pandemia hasi zenetik.

- Milanen 35 km kenduko dizkiete autoari bizikleta eta oinezkoentzako bide berriak irekitzeko.

- Valentziako Generalitateak 2.300 km bidegorri eraikiko ditu horretarako 141 milioi euro inbertituz.

- Granadan 75 kilometro bidegorri berri jarriko dituzte eta 51 kale oinezkoentzat.

También se pronuncia en este sentido el BOE del 1 de mayo de 2020, en el punto 5 del artículo 3 (“Requisitos para evitar el contagio”) :

“Para posibilitar que se mantenga la distancia de seguridad, las entidades locales facilitarán el reparto del espacio público a favor de los que caminan y de los que van en bicicleta, en ese orden de prioridad”.

EH Bildu también solicitó al Gobierno Municipal de San Sebastián que estudiara e implantara una serie de medidas durante el estado de alarma. Pero el Gobierno Municipal no tomó en consideración ninguna medida de las propuestas por EH Bildu.

Desde el inicio del estado de alarma, numerosas ciudades y pueblos han introducido cambios en relación con la promoción del uso de la bicicleta:

- En Berlín, se han pintado bidegorris provisionales sobre el asfalto en todas las vías posibles y en todos los lugares en los que se ha considerado necesario, para facilitar la distancia social.

- París invertirá 300 millones de euros en la creación de una red de 9 rutas ciclistas seguras. Desde el inicio de la pandemia, se han construido en esta ciudad 50 kilómetros de bidegorri.

- En Milán se quitarán 35 km a los automóviles para abrir nuevas vías ciclistas y peatonales.

- La Generalitat Valenciana construirá 2.300 km de bidegorri, invirtiendo en ello 141 millones de euros.

- Granada se dotará de 75 kilómetros de bidegorri nuevos y de 51 calles peatonales.

- Malagak 50 kilometro baino gehiago ahalbidetuko ditu bizikleta eta patineentzat.

Eta bestelako neurriak ezarriko dira Gasteizen, Iruñean eta Galdakaon, besteak beste.

Deseskalamendua eman den honetan Donostiako bizilagunak, espero zen bezala, kalera atera dira baimendutako orduetan bizikletan ibiltzera, korrika egitera, surf egitera... eta honen ondorioz, zenbait espazio publikotan jende pilaketak gertatu dira. Leku berean hainbeste jende topo egitean (oinez, bizikletaz, patinetez...) arriskuak sortu dira, bai istripuak gerta daitezkeelako, bai distantzia fisikoak ez direlako bermatzen. Gainera, lehen baino jende gehiago ari da erabiltzen bizikleta garraio bide gisa, horrek sortzen duen mugikortasun aldaketarekin.

Beraz, maiatzaren 11n egindako Gune Publikoen Batzordean, Donostian hartutako neurriez eta hartu beharrezkoen galdetu genion zinegotzi arduradunari. Haren erantzunaren arabera, alarma egoeran ginen bitartean, Donostiako Udalak ezin zuen gehiago egin, eta jada hartu dituen neurriak eta publikoki aurkeztu dituenak egun bizi dugun mugikortasun-aldaketarako nahikoa direla adierazi zuen.

Ondoren maiatzaren 13an jakin genuen Donostiako Udalak bertan behera utzi zuela Dbizi zerbitzua "sine die".

EH Bilduren ustez, eta horrela adierazi duten hainbat erabiltzaile eta eragileren ustez ere bai, Donostiako Udalak ezarritako 10 eremuko 5 kale (800 m) eta 30 eremua Askatasun Hiribidean (400 m), ez da nahikoa.

- Málaga dedikará más de 50 kilómetros para bicicletas y patines.

También se implantarán diversas medidas en Vitoria-Gasteiz, Pamplona y Galdakao, entre otras.

Como era de esperar, durante la desescalada, los vecinos y las vecinas de San Sebastián, han salido a la calle a las horas permitidas andar en bici, a correr, a hacer surf... y, como consecuencia de ello, se han producido aglomeraciones en algunos espacios públicos. Al juntarse tanta gente en el mismo lugar (peatones, ciclistas, personas en patinete...), se han originado riesgos, tanto por la posibilidad de accidentes como porque no se han garantizado las distancias físicas. Además, el uso de la bicicleta como medio de transporte es mayor que antes, con el consiguiente cambio que eso genera en la movilidad.

Por todo ello, en la Comisión de Espacios Públicos celebrada el pasado 11 de mayo, preguntamos a la concejala responsable sobre las medidas ya adoptadas y sobre las que se iban a adoptar en San Sebastián. Según su respuesta, mientras estábamos en situación de alarma, el Ayuntamiento de San Sebastián no podía hacer más. Señaló, además, que las medidas que ya ha adoptado y que ha presentado públicamente son suficientes para el cambio de movilidad que vivimos en la actualidad.

Posteriormente, el 13 de mayo se tuvo conocimiento de que el Ayuntamiento de San Sebastián ha suprimido el servicio Dbizi "sine die".

EH Bildu considera, junto con varios usuarios, usuarias y agentes que así lo han manifestado, que las calles que ha dispuesto el Ayuntamiento de San Sebastián no son suficientes: 5 calles de área 10 (800 m) y área 30 en la avda. de La Libertad (400 m).

Beharrezkoa da autoen erabilera geldiaraztea eta oinez edo bizikletaz egindako desplazamendu aktiboak sustatzea. Bizikletaren erabilera bultzatu beharko litzateke, ezin baitugu ahaztu bizikletaren izaera jasangarri, energetikoki eraginkor eta sozialki osasungarria. Horretarako hirian behar diren aldi baterako aldaketak egin behar dira, jendea bizikletaz joan ahal izan dadin, txirrindularien eta oinezkoen arteko segurtasun-distantziak mantenduz.

Beraz beharrezko da mugikortasuna ahalbidetzeko neurriak hartzea espazio publikoetan, beste hainbat hiri asko egiten ari diren moduan. Egokiena litzateke espazio publikoaren banaketa egitea, oinez eta bizikletaz doazenen aldeko segurtasun-neurriak ahalbidetzeko.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

1- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari oinezkoentzako eta bizikletentzako segurtasun-neurriak bermatzeko espazio publikoaren banaketa egin dezala eta neurri eraginkorrak har ditzala, oinezkoak eta bizikletak modu seguruan ibil daitezen, istripurik ez gertatzeko eta distantzia fisikoa bermatzeko

2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari zirkulazio-abiaduraren mugak murrizteko neurriak har ditzala, herritarren segurtasuna eta bizi-kalitate bermatzeko, eta oinezko eta bizikletei lehentasuna emateko.

Donostia, 2020ko maiatzaren 18an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego

Es necesario frenar el uso del coche y fomentar los desplazamientos activos a pie o en bicicleta. Se debería fomentar el uso de la bicicleta, ya que no podemos olvidar su naturaleza sostenible, energéticamente eficiente y socialmente saludable. Para ello, es necesario realizar los cambios temporales necesarios en la ciudad para que la gente pueda ir en bicicleta, manteniendo las distancias de seguridad entre ciclistas y peatones.

Es necesario, por tanto, adoptar medidas que permitan la movilidad en los espacios públicos, tal como se está haciendo en otras muchas ciudades. Lo ideal sería hacer una distribución del espacio público que permitiera que se cumplieran las medidas de seguridad a favor de los y las peatones y ciclistas.

Por todo lo expuesto, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCION DE CONTROL:

1- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que realice una distribución del espacio público que garantice las medidas de seguridad para peatones y ciclistas y a que adopte medidas eficaces para garantizar la movilidad segura de ambos, evitar accidentes y garantizar la distancia física

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que adopte medidas para reducir los límites de la velocidad de circulación, con el fin de garantizar la seguridad y la calidad de vida de la ciudadanía y dar prioridad a los peatones y ciclistas.

San Sebastián, 18 de mayo de 2020

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,

EH BILDU udal taldeko zinegotzia”

concejala del grupo municipal EH Bildu”

Eztabaida hasita, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Marta Huarte Paño andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.^a Garbiñe Alkiza López de Samaniego, D.^a Marta Huarte Paño, D. Borja Corominas Fisas y D.^a Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENCIONES: 0.

5. eta 22. kontrol mozioak elkarrekin eztabaidatuko dira.

Se tratan conjuntamente las mociones de control nº 5 y nº 22

II.2.5. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, COVID-19ak kultur esparruan izan duen eraginari buruzkoa.

“Zigor Etxeburua Urbizuk, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udaltzatzen Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du, Udaltzatzen azter dadin. Mozioa 2020ko maiatzaren 11n Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

II.2.5. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la incidencia del COVID-19 en el ámbito cultural.

“Zigor Etxeburua Urbizu, concejal del grupo EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN, para que sea tratada en el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación tratada el 11 de mayo de 2020, en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

Gure hiriak kultur bizitza zabala du, sortzaile ugari ditu eta, modu batean edo bestean, kulturen parte hartu edota berarekin gozaten dugu herritar gehienok. Orain, Covid19ak eragindako osasun krisiak eraginda, gure sortzaileak kinka larrian geratu dira, babesgabe: hitzartuta zituzten emanaldiak bertan behera geratu dira, argitaratu asmo zituzten lanak ezin plazaratu daude, iturri ekonomikoen emaria etenda... Covid19ak sektore hori amildegi ertzean ipini du. Euskal kulturgintzaren prekaritatea egiturazko arazoa da, baina Covid19ak eragindako pandemiak arazoa izugarri larriagotu du. Egoera hori are zailagoa da euskaraz sortzen duten kulturgileentzat, gure ekosistema zaugarria baita lehendik ere.

Covid19ak eragindako krisiaren lehen unetik, Donostiako EH Bilduren udal taldea harremanetan jarri zen Udal Gobernuarekin, kulturen esparruan aurreikusten genuen egoera arazotsuari aurrea hartzeko. Martxoaren 20an bidalitako mezuan, kezka adierazi genion DKko langileen egoeraren inguruan (behin behinekoak bereziki), galdetu genion harremanik izan ote zuen hiriko kultur eragileekin beraien egoeraz jakiteko, itaundu genion zer asmo zuten programatuta edota hitzartuta egonik bertan behera geratutako emanaldi eta egitasmoekin, eta eskatu genion, kulturako aurrekontuan aldaketarik egin behar izatekotan, Donostia Kultura erakundeko Administrazio Kontseiluari eskatzeko irizpide batzuk, erabakiak adostuak izateko, ahal zen heinean. Aipatu galderei erantzunez, martxoaren 23an, uneko egoerari erantzuteko asmo batzuk aurreratu zizkion zinegotzi arduradunak udal talde honi. Informazio hori ematea eskertzeaz batera, berriz adierazi genion gure taldea laguntzeko prest zegoela.

Nuestra ciudad tiene una amplia vida cultural, tiene muchas personas creadoras y, de un modo u otro, la mayoría de la ciudadanía participamos en esta cultura o disfrutamos de ella. Ahora, debido a la crisis sanitaria provocada por Covid19, nuestras y nuestros creadores se encuentran en una situación crítica, de indefensión: se han suspendido las actuaciones que tenían acordadas, las obras que iban a presentar no pueden ver la luz, las fuentes económicas se han interrumpido... En definitiva, el COVID-19 ha puesto a este sector al borde del abismo. La precariedad de la cultura vasca es un problema estructural, pero la pandemia provocada por el COVID-19 lo ha agravado enormemente. Esta situación es aún más difícil para las y los creadores culturales que crean sus obras en euskera, ya que nuestro ecosistema ya era vulnerable antes.

Ya en el primer momento de la crisis provocada por el COVID-19, el grupo municipal de EH Bildu de San Sebastián se puso en contacto con el Gobierno Municipal, con el objetivo de anticiparse a la problemática que se preveía en el ámbito cultural. En un mensaje enviado el día 20 de marzo, trasladamos al Gobierno de la ciudad nuestra preocupación por la situación de las personas que trabajan en DK (especialmente las interinas); le preguntamos si habían mantenido contactos con los agentes culturales de la ciudad para conocer su situación; le interpelamos sobre qué intenciones tenían con respecto a las actuaciones y proyectos que ya estaban programados o acordados y que se habían suspendido, y solicitamos que, en caso de que hubiera que realizar modificaciones en el presupuesto de Cultura, se solicitaran unos criterios al Consejo de Administración de Donostia Kultura, para que, en la medida de lo posible, las decisiones fueran consensuadas. En respuesta a las preguntas planteadas, el día 23 de marzo, la persona que ostenta la concejalía delegada comunicó a este grupo municipal una serie de

Ordutik bi hilabete igaro dira, eta Udal Gobernuak galdera batzuk erantzun baditu ere, eta Donostia Kulturak egindakoez zenbait berri eman dizkigun arren, ez du hiriko kultur bizitzak pairatu duen eraginaren inguruko azterketarik partekatu udal taldeekin, ez du aurreratu nondik nora joango den kultur esparrua laguntzeko eta sustatzeko jorratu nahi duen bidea, ezta udal taldeoi horren inguruko iritzirik eskatu ere. Bitartean, kultur esparruko eragileek alarma deia jo dute, bai RESET plataforman bildu zirenek, baita apirilaren 21 eta 22rako greba digitala deitu zuten eragileek ere.

Horiek horrela, igaro den maiatzaren 11ko batzordean, Kulturako zinegotziari galdetu genion zergatik Udal Gobernuak ez zuen partekatu egoeraren inguruko azterketarik, udal taldeekin, osasun krisiko tarte horretan. Zinegotziaren esanetan, aski informazio eman zien udal taldeei, garaian egindako galderei erantzun zielako jada, eta DKko eta Musika Eskolako zuzendariak informazioa bidali zigutelako tarteka, erakunde horietako administrazio kontseiluetako kide garenoi. Hona hemen informazio hori (soilik DK erakundeak helarazitako informazioa ekarriko dugu, hori baita mozio honen funtsa):

- Mar 23
- Info: etxetik lanean, datuak; programazioa etenda (GIZA ESKUBIDEEN jaialdia bertan behera; ekitaldi gehienak udazken-negura pasatzeko erabakia; Mojo

intenciones para dar respuesta a la situación actual. Además de agradecer la información comunicada, nuestro grupo reiteró su disposición a colaborar.

Han pasado dos meses desde entonces, y aunque el Gobierno Municipal ha respondido a una serie de preguntas y nos ha proporcionado alguna información sobre lo realizado por Donostia Kultura, no ha compartido con los grupos municipales ningún análisis sobre el impacto que ha sufrido la vida cultural de la ciudad, no nos ha hecho saber en qué dirección pretende trabajar para apoyar y promover el ámbito de la Cultura, ni ha pedido a los grupos municipales sus opiniones sobre el tema. Mientras tanto, los y las agentes culturales han hecho sonar la alarma. Nos referimos tanto los que se unieron en torno a la plataforma RESET como los que convocaron la huelga digital los días 21 y 22 de abril.

Por todo ello, en la comisión celebrada el pasado 11 de mayo, preguntamos al concejal de Cultura por qué el Gobierno Municipal no había compartido con los grupos municipales un análisis de la situación en ese periodo de crisis sanitaria. Según manifestó el concejal, había dado información suficiente a los grupos municipales, ya que respondió a las preguntas planteadas en su día, y los directores de DK y de la Escuela de Música nos habían enviado información, en varias ocasiones, a las personas que formamos parte de los consejos de administración de estas instituciones. Esta información se detalla a continuación (sólo aportamos la información facilitada por DK, que es el fundamento de esta moción):

- 23 marzo
- Info: trabajo desde casa, datos; programación interrumpida (anulación del festival de DERECHOS HUMANOS; decisión de pasar la mayoría de los eventos al otoño-invierno;

Workin egoera); Liburutegiak, datuak; ON LINE eskaintza abiatzeko asmoa; kultur zerbitzuei eta sortzaileei eusteko asmoa.

- Mar 27
- Info: DK ETXEAN programazioa abian jartzeko erabakia, eta programazioaren nolakoa.
- Api 17
- Info: Zertan ari den DK: Telelana, datuak; DK Etxean (maiatzaren 10era arte luzatzeko erabakia; audientziak; ordainketak; info laburra ikastaroak online emateaz, lanera itzultzeko prestaketak egiteaz eta DKren eskaintza zabaltzeko eskenatokiak marrazten aritzeaz.
- Api 24
- Info: Langileen prestakuntza, datuak.
- Api 29
- Info: Ordu batzuk lehenago alkateak hiriko kultur eragile batzuekin egindako bileraren berri ematea, eta aurretik hartuta zituen zenbait erabaki ezagutaraztea. Era berean, programazioa nola landu, antzokiak noiz ireki eta abar aurrerago jakinarazteko asmoa azaltzea. Azkenik, aurreratzea Jazzaldiaren edizio berezia egitea erabaki den moduan gauza bera egingo dela Musika Hamabostaldia eta Zinemaldiarekin ere.
- Mai 7
- Info: ANTZOKIA ETXEAN ekimenaren amaieraren, nolakoa.
- Mai 12
- Info: DK ETXEAN ekimenaren balantzea.
- Galdera: administrazio kontseilua egiteko eguna.
- Mai 14
- Info: administrazio kontseilua egiteko eguna.

Zerrendatutako mezuen edukietan ikusten

situación de Mojo Workin); Bibliotecas, datos; intención de lanzar la oferta ON LINE; intención de mantener los servicios culturales y a los y las creadoras.

- 27 marzo
- Info: Decisión de poner en marcha la programación DK ETXEAN, y decidir también cómo va a ser esta.
- 17 abril
- Info: Qué está haciendo DK: Teletrabajo, datos, DK Etxean (decisión de prorrogarlo hasta el 10 de mayo; audiencias; pagos; info breve sobre la impartición de cursos online, sobre la preparación para la vuelta al trabajo y sobre dibujar escenarios para ampliar la oferta de DK.
- 24 abril
- Info: Formación del personal, datos.
- 29 abril
- Info: Se informó sobre la reunión del alcalde con algunos agentes culturales de la ciudad que se celebró unas horas antes, y se dio a conocer algunas decisiones que había adoptado con anterioridad. Asimismo, se dijo que cuestiones como trabajar la programación, cuándo abrir los teatros, etc., se darían a conocer más adelante. Por último, se adelantó que, tal y como se ha decidido realizar una edición especial del Jazzaldia, se hará lo mismo con la Quincena Musical y el Festival de Cine.
- 7 mayo
- Info: Fin de la iniciativa ANTZOKIA ETXEAN, cómo será.
- 12 mayo
- Info: Balance de la iniciativa DK ETXEAN.
- Pregunta: fecha de celebración del Consejo de Administración.
- 14 mayo
- Info: fecha de celebración del Consejo de Administración.

Como se puede observar en los contenidos de los

denez, eposta guztiak informatiboak izan dira, ez da iritzirik eskatu, ez bada Administrazio Kontseiluaren bileraren data noiz egin zehazteko. Kontseiluko kideoi informazioa eman zaigu; ez, ordea, iritzia eskatu.

Era berean, galdetu genion Kulturako zinegotziari zergatik Udal Gobernuak ez digun aurreratu, udal taldeoi, nondik nora joango den jorratu nahi duen bidea, kultur esparrua laguntzeko eta sustatzeko. Zinegotzi arduradunak erantzun zuen egoera zaila izan dela estrategiak markatzeko, eta iskin egin nahi izan zion galderari, berriro gogoratuta DKko Administrazio Kontseiluko kideoi bidalitako informazioa.

Azkenik, galdetu genion zergatik Udal Gobernuak ez dien iritzirik eskatu udal taldeei, kultur esparrua pairatzen ari den egoera hain larria dela jakinik. Zinegotziak gure taldeari leporatu nahi izan zion garaian iritzia eman ez izana. Horren aurrean, oroitarazi genion EH Bildu taldeak Udalbatzaren erregistroan sartu zuela, apirilaren 24an, kultur bizitza berrartzeko eta indartzeko ekintza plan bat, eta alkateak berak aitortu ziola gure bozeramaileari hainbat neurriekin bat zetorrela.

EH Bildu udal taldeak azpimarratu nahi du gogoeta partekatu baten beharra dagoela Covid-19aren krisiak hiriko kultur bizitzan eragin duen kalteen eta utzi duen egoeraren inguruan, eta beharrezkoa dela kultur bizitza berrartzea eta indartzea helburu izango duen ekintza plan bat adostea guztion artean. Tamalez, krisi egoera hau luzatu egingo da, eta gogoan izan behar dugu kultur arloa izan dela lehenengoetako kaltetua, eta egoera honetatik ateratzen azkenetakoa izango dela. Horregatik, ez da pertsonalismoan aritzeko

mensajes relacionados, todos los correos han sido exclusivamente informativos, no se nos ha solicitado opinión alguna, salvo para decidir la fecha de la reunión del Consejo de Administración. A las personas que formamos el Consejo se nos ha informado, pero no se ha solicitado nuestra opinión.

Asimismo, preguntamos al concejal de Cultura por qué el Gobierno Municipal no nos ha adelantado, a los grupos municipales, qué camino va a seguir para apoyar y promover el ámbito cultural. El concejal responsable respondió que ha sido una situación difícil para marcar estrategias y trató de esquivar la pregunta, recordando nuevamente la información remitida a las personas miembros del Consejo de Administración de DK.

Por último, le preguntamos por qué el Gobierno Municipal no ha solicitado su opinión a los grupos municipales, sabiendo que la situación que está soportando el mundo de la cultura es muy grave. El concejal quiso acusar a nuestro grupo de no haber dado nuestra opinión en su día. Ante ello, le recordamos que el grupo EH Bildu presentó en el Registro del Pleno, el pasado 24 de abril, un plan de acción para la revitalización y fortalecimiento de la vida cultural, y que el propio alcalde reconoció a nuestra portavoz que estaba de acuerdo con algunas de las medidas.

El grupo municipal EH Bildu quiere subrayar la necesidad de una reflexión compartida sobre las consecuencias negativas y la situación que ha dejado la crisis del Covid-19 en la vida cultural de la ciudad, y sobre la necesidad de consensuar entre todos un plan de acción que tenga como objetivo la recuperación y el fortalecimiento de la vida cultural. Lamentablemente, esta situación de crisis se prolongará, y no debemos olvidar que el mundo de la cultura ha sido uno de los primeros perjudicados y que será uno de los últimos en salir de esta situación. Por eso, esta no es hora

edo protagonismoa bilatzeko garaia, denok batera aritzekoa baizik.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari eratu dezala kultur mahai bat hiriko kultur eragileekin (profesionalak eta irabazi asmorik gabekoak) eta udal taldeon ordezkariekin, gogoeta prozesu bat abiatzeko, Covid-19aren krisiak hiriko kultur bizitzan eragin dituen kalteen eta utzi duen egoeraren inguruan, eta kultur bizitza berrartzea eta indartzea helburu izango duen ekintza plan bat adosteko.

Donostia, 2020ko maiatzaren 18an

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

II.2.22. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, tokiko kultur gintza indartu eta babesteari buruzkoa.

“Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile naizen Aitzole Araneta honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikularekin bat etorrita, TOKIKO KULTURGINTZA INDARTU ETA BABESTEARI buruzko honako KONTROL MOZIO hau aurkezten dut.

JUSTIFIKAZIOA

COVID-19ak eragindako osasun krisiak gizarteko sektore guztiei eragin die, modu batera edo bestera. Eragindako sektore

de personalismos o de buscar protagonismo, sino de trabajar todas y todos juntos.

Por todo lo expuesto, el concejal abajo firmante presenta la siguiente MOCION DE CONTROL:

MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que constituya una mesa cultural con las y los agentes culturales de la ciudad (tanto profesionales como sin ánimo de lucro) y con representantes de los grupos municipales, para iniciar un proceso de reflexión sobre las consecuencias negativas y la situación que la crisis del Covid-19aren ha traído a la vida cultural de la ciudad, así como para acordar un plan de acción que tenga como objetivo la recuperación y el fortalecimiento de dicha vida cultural.

San Sebastián, 18 de mayo de 2020

Zigor Etxeburua Urbizu,
Concejal del grupo municipal EH Bildu”

